
Etxebizitza, emakumeon aurkako indarkeria-espazio

Hego Euskal Herriko erradiografia



Euskal Herriko
Etxebizitza
Sindikatu
Sozialista

itaia

Indarkeria matxista eta etxebizitzaren auzia

2026

Aurkibidea

01 Sarrera 6

02 Indarkeria matxista eta etxebizitzaren auzia 8

03 Indarkeria matxista kasuak goraka 12

04 Genero-arrakala handitzen ari da etxebizitzarako sarbidean 14

- 4.1 Lan-prekarietatea eta bizitoki-prekarietatea
- 4.2 Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa
- 4.3 Etxebizitza-prestazioak
- 4.4 Guraso bakarreko familiak, emakume biktimak eta etxegabetzeak

05 **Iristen ez diren baliabideak** 17

5.1 Errealitatearen eta diskurtso instituzionalaren arteko kontrastea
5.2 Baliabide falta
5.3 Kontrol burokratikoa eta tutoretza instituzionala
5.4 Inolako babesik jasotzen ez duten egoerak

06 **Etxebizitza Sindikatu Sozialistara jotzen duten pertsonak** 21

07 **Testigantzak** 23

7.1 Esther: erasotzailearekin bizitzera behartua
7.2 Natalia: sexu intsinuazioak aterpearen truke
7.3 Cristina: etxejabearen sexu erasoen biktima
7.4 Rania: baliabide prekario batetik beste batera, egonkortasunik eta bermerik gabe
7.5 Fatou y María: "Date una Oportunidad", izenaren eta eskaintzaren arteko kontrastea
7.6 Arantxa: senarra salatu ostean, etxegabetu egin dute

08 **Ondorioak** 29

8.1 Askatasun ekonomikoa askatasun soziala da
8.2 Etxebizitzaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako borrokaren egitekoak

1 Sarrera

Testu hau Itaia Emakumeon Antolakunde Sozialistak eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak elkarlanean egindako txostena da. Elkarlanhonen helburua etxebizitzaren auzia eta horrek indarkeria matxistarekin duen lotura hiru ikuspegitatik jorratzea da: lehenik, ikuspegi analitiko batetik, emakume langileek etxebizitzarako sarbidean dituzten arazo izugarrien eta baliabide instituzionalen erabateko faltaren argazki erreala eskaintzea. Bigarrenik, ikuspegi humano batetik, egoera horiek pairatzen dituzten emakumeei ahotsa ematea eta, haien testigantzen bidez, datuek jasotzen ez dituzten dimentsioak islatzea; besteak beste, kontrol burokratikoa, presio instituzionala edo errentatzaileek gauzatutako sexu-indarkeria. Eta hirugarrenik, ikuspegi guztiz politiko batetik, egoera horiek duten egiturazko kausa azaldu eta logika kapitalista gainditzeko beharra azpimarratzea; izan ere, logika horiek erabat baldintzatzen dituzte etxebizitzarako sarbidea eta emakume langileei —eta bereziki, indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei— bideratzen zaizkien baliabideen eskuragarritasuna eta kudeaketa.

Azpimarratzekoa da lan hau osorik lan militantearen bidez egin dela: guztiz borondatezkoa eta langile-klasearen bizi-baldintzen defentsara bideratua. Bi esperientzia bateratu dira txosten honetan:Itaiarena, Euskal Herrian indarkeria matxista kasuei erantzun eta matxismoaren aurka borroka egiten duena; eta Etxebizitza Sindikatu Sozialistarena, egunero ehunka pertsona artatzen eta laguntza juridikoa, logistikoa, politikoa eta emozionala ematen diona. Horren emaitza da txosten hau, eta kontrapuntu egokia eskain diezaieke “datu ofizialei” eta indarkeria matxistaren aurka lan egiten dutela dioten diskurtso instituzionalei.

Txostenaren egiturari dagokionez, lau atal nagusitan banatzen da. Lehenik, etxebizitzaren auziaren eta emakume langilearen zapalkuntzaren kausa estrukturalei buruz dugun ikuskera azalduko dugu. Atal berean, oro har, egungo koiunturan etxebizitzaren auzia eta indarkeria matxista nola lotzen diren azalduko dugu. Bigarren blokean, diagnostiko bat eskainiko dugu, eta hartatik ondoriozta daiteke inolako zalantzarik gabe bi auziak erritmo azkarrean gogortzen ari direla. Hirugarrenik, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat dauden bizitoki-baliabideak aztertuko ditugu; kuantifikatu eta aletuko ditugu, ondoren, haien benetako irismenaren balantzea egiteko. Azken atalean, bi problematika horiek argiki adierazten dituzten zenbait emakumeren testingatzak jasoko ditugu.

2 Indarkeria matxista eta etxebizitzaren auzia

Indarkeria matxista eta etxebizitzarako sarbidea: estuki lotutako bi arazo dira eta, gainera, abiada bizian areagotzen ari direnak. Hurrengo lerroetan bi problematika horiei buruz dugun ulerkera azalduko dugu —hau da, zein diren haien kausa estrukturalak— baita egungo koiunturan elkarren artean nola erlazionatzen diren ere.

Gizarte kapitalistan, **emakume langileok bigarren mailako subjektuak gara;** horretarako zaurgarri eta kontrolagarri sozializatzen gaituzte. Horrek guztiak eragina du gure bizitzetan: lan-baldintza prekarizatuetan lan egin behar izatea, gizartetik baztertuta egotea edo etxeko lanen zama gure gain erortzea. Horrez gain, indarkeria matxista da gure zapalkuntzaren adierazpenik gordinena.

Egoera horri gizartean faxismoak izan duen gorakada gehitu behar zaio. **Bai instituzioetan, bai kale mailan, ideia matxistak eta erreakzionarioak indartu egin dira**. Horren adibide argia dira eskuineko alderdi politikoen edo gizartean zabaltzen ari diren ideiak: emakumeen aurkako indarkeria ukatzea, kolektibo zapalduen aurkako mezuak eta erasoak, edo emakume langileok bizi dugun zapalkuntza asmakizun ideologiko bat dela dioten ideiak zabaltzea. Era berean, aipatzekoa da “gobernu aurrerakoia” deitu izan denaren politika feministen aurrean Espainiako Estatuko eskuineko alderdiek hartu duten jarrera erreakzionarioa. Politika horiek emakume langileen bizi-baldintzak hobetzeko mugak erakutsi badituzte ere, eskuinak horien aurkako kritika baliatu du ideia faxista eta matxistak indartzeko, eta emakumeen eta langile-klase osoaren eskubideetan atzerakada bultzatzeko.

Aipatu bezala, **indarkeria matxista** emakume langileen aurkako egiturazko zapalkuntzaren adierazpenik gordinena da, eta krisi ekonomikoaren

eta autoritarismoaren gorakadaren kontestu honetan, **gogortzen eta normalizatzen ari da.**

Bestalde, etxebizitzaren auzia ere arazo estrukturala da sistema kapitalistan. Gure bizitzak garatzeko beharrezkoak diren ondasun materialak jabetza pribatuan daude oinarrituak. **Etxebizitzaren merkataritza- izaerak erabat baldintzatzen du beharrezko ondasun hori eskuratzeko aukera**. Horrela, etxebizitzarako sarbidea erosahalmenak zehazten du, eta klase-posizioaren arabera banatuta dago. Ondasun higiezinen gaineko jabetza pribatua existitzen denetik, gizartearen zati bat erabat baztertuta egon da etxebizitzarako sarbidetik, eta langile-klasearen beste zati esanguratsu batek prekarietate-, ezegonkortasun- eta pobretze-baldintzetan eskuratzen du bere etxea.

Egungo testuinguruan, ordea, joera hori larriagotu egin da. Irabazien krisiaren aurrean, kapitalista askok etxebizitzaren merkatua ari dira erabiltzen beraien mozkinak handitzeko. Horregatik bihurtu da **etxebizitza aberastasuna kontzentratzeko eta polarizazio sozial eta ekonomikorako mekanismorik garrantzitsuenetako bat**. Higiezinen espekulazioaren ondorioz, jabetzak gero eta esku gutxiagotan pilatzen dira eta, aldi berean, langile-klasearen soldaten eta aurrezkien aurkako eraso zuzena gauzatzen da. Etxebizitza eskuratzeko estratifikazio- prozesua areagotzen ari da, hain zuzen, prezioak igotzen ari direlako eta etxebizitzaren erregularizazioa enpresarien eta errenterien etekinak areagotzera bideratzen direlako. Estratifikazio-prozesu are handiagoa gertatzen ari da etxebizitza eskuratzeari dagokionez. Hau da, langile-klasearen geruza guztiei eragiten dien proletarizazio-prozesu bat gertatzen ari da, modu desberdinean baina geldiezinean pobretzen dituena: lehen etxebizitza jabetzan eskura zezaketenek orain alokairu bat lortzeko borrokatu behar dute, eta lehen alokairua ordain zezaketenak orain logelak partekatzera behartuta daude.

Laburbilduz, bi problematika estrukturalen aurrean gaude, gizarte kapitalistari berezko zaizkionak eta haren barne-logikarekin estuki lotuta daudenak, hain zuzen, kapitalaren metatze-logikarekin. Gainera, krisian dagoen kapitalismoaren testuinguru historiko honetan problematika horiek nabarmen larriagotzen dira.

Etxebizitzaren auziaren eta indarkeria matxistaren arteko harremana estua da: etxea da eguneroko bizitza garatzen den tokia, bilgunerako eta intimitaterako tokia. Ezaugarri horiek ez lukete berez negatiboak izan beharko; hala ere,

emakume langilearen aurkako zapalkuntzaren eta etxebizitzaren merkataritza-izaeraren ondorioz, norbanakoaren garapen askerako espazioa izan beharko lukeena kontrol- eta menderatze-espazio bihurtzen da emakume langileontzat. Bi problematiken arteko elkarreragina puntu hauetan laburbildu dugu:

- **Etxea, erreprodukzio-lanetarako gunea:** Lehenik, etxea isolamendurako gunea da etxearen garbiketa eta familiaren zaintza egitera behartuta baitaude emakume langile asko eta asko.. Bereziki larria da etxeko langileen egoera, eskubide ekonomiko eta politikorik gabe eta etxebizitza propio barik isolatuago eta zaurgarriago baitaude.

- **Intimitatea, erasotzaileen inpunitate-gunea:** Bigarrenik, etxeko bizitza intimoa erasotzaileen zigorgabetasuna handitzeko gunea bihur daiteke.

- **Etxebizitza, xantaia ekonomikorako mekanismoa:** Hirugarrenik, etxe bat izateko ezinbesteko beharrak xantairako mekanismo gisa funtzionatzen du, indarkeria-egoeratik askatu nahi duten baina, beren dependentzia ekonomikoagatik, ezin duten emakumeen aurka.

- **Etxebizitza eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzten emakume langileak:** Laugarrenik, emakume langileek baldintza ekonomiko okerragoak pairatzen dituzte —soldata baxuagoak, aldi baterako edo lanaldi partzialeko enpleguak, bakarka bere gain hartutako zaintza-ardurak— eta, beraz, arazo handiagoak dituzte etxebizitza bat lortzeko.

- **Hertsapeneam oinarritutako kontratuak:** Bosgarrenik, etxebizitza bermatuta ez edukitzearen ondorioz, emakume langile askok sexu-indarkerian oinarritutako kontratuak onartu behar izaten dituzte baliabide horiek dituzten gizonekin.

- **Indarkeria-egoeren aurrean esposizio handiagoa:** Seigarrenik, emakume proletarioek etxebizitza modu egonkorrean eskuratzeko zailtasunak dituzte eta, ondorioz, guztiz prekarioak diren irtenbideak onartu behar izaten dituzte , besteak beste, pisu partekatuak, aterpetxeak edo bestelako harrera- baliabideak. Toki horietan, indarkeria handiagoko egoerak jasan behar izaten dituzte.

- **Baliabide falta eta instituzioen kontrol burokratikoa:** Eta zazpigarrenik, indarkeria matxista pairatzen duten emakumeek biktimizazio bikoitza jasaten dute; izan ere, instituzioetara jotzen dutenean, ez dute haiengandik behar duten laguntza logistiko, material eta psikologikorik jasotzen eta, baliabide faltaren ondorioz, instituzioek prozesu burokratiko amaigabeak ezartzen dizkiete emakume horiei.

Etxeak babesleku izan beharko luke, baina irabazi ekonomikoak lehenesten dituen sisteman, etxebizitza emakume langilea zapalduta mantentzeko espazio bihurtzen da: erasotzailearekin bizi beharreko tokia eta, aldi berean, zaintza-zamen eta eguneroko erreprodukzio-zamen eszenatokia. Horrela, **askotan, kontrolerako, segurtasun ekonomiko ezarako eta indarkeria matxista gauzatzeko bihurtzen da etxebizitza.**

3 Indarkeria matxista kasuak goraka

Hurrengo ataletan, datuen bidez erakusten saiatuko gara indarkeria matxista arintzeko bideratutako baliabideak urriak direla eta, kasu askotan, emakumeak egoera zaurgarriagoan uzten dituztela, hain zuzen, emakume langileontzat etxebizitzaren auzia eta indarkeria matxista gogortzen ari diren honetan.Has gaitezen hasieratik: indarkeria matxistaren gorakada Hego Euskal Herrian.

Indarkeria matxistak errealitate kezkagarria izaten jarraitzen du, bai Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean EAE), bai Nafarroan. 2023 eta 2025 artean, EAEn erregistratutako biktimizazioak % 8,3 igo ziren Emakunderen arabera, eta Nafarroan, berriz, % 7,2, INAIren arabera. 2026ko urtarriletik uztailera bitarteko datuek salaketen goranzko joera berresten dute: 2025eko garai berarekin alderatuta % 9 bizktimizazio gehiago jaso dira EAEn (4.601 guztira) eta % 3 salaketa gehiago Nafarroan (1.391 guztira).

Arazoaren larritasuna babes-eskaeretan eta biktimei emandako erantzun instituzionalean ere islatzen da. EAEn 1.212 babes-eskaera erregistratu ziren 2025ean, baina horietatik ia herena ukatu egin zen (395 eskaera). Datuak antzekoak dira Nafarroan, 350 babes-eskaeretatik 110 ukatu baitziren (% 30,0). 2026ko lehen seihilekoan, Nafarroan 298 babes-eskaera erregistratu dira, 2025eko eskaera guztien % 85,1, eta EAEn, berriz, % 53,1 (643 eskaera). Hileko batez bestekoa aurreko urtekoa baino % 70,3 handiagoa da Nafarroan, eta % 6,1 handiagoa EAEn. Datu horiek erakusten dutenez, **babes-eskaeren erritmoa askoz ere handiagoa izateaz gain, emakume askok zailtasunak dituzte oraindik babes-neurriak lortzeko, eta horrek beraien zaurgarritasun egoera areagotu dezake.**

Halaber, datuek erakusten dute **indarkeria nagusiki biktimen ingurune hurbilean gertatzen dela.** EAEn, biktimizazioen % 90,2 bikotekideek, bikotekide ohiek edo beste senide batzuek eragindako indarkeriari dagokio; Nafarroan, harreman horiek salaketen % 82,2 bildu zituzten. Indarkeria matxistak, beraz, egiturazko eta etxeko dimentsio handia izaten jarraitzen du, eta dimentsio hori handitzen ari da.

Indarkeria matxistaren errealitatea zabala da, eta atal labur honetan islatu ezin ditugun ñabardura ugari ditu, baina hilketa matxistei erreparatu nahiko genieke. **2003tik, 137 emakume erail dituzte Euskal Herrian.** Erailketa horietako gehienak bikotekideek, bikotekide ohiek edo ingurune hurbileko pertsonek egin zituzten, eta asko etxebizitza partekatuaren edo familia-etxearen barruan gertatu ziren.

4 Genero-arrakala handitzen ari da etxebizitzarako sarbidean

4.1. Lan-prekarietatea eta bizitoki-prekarietatea

Etxebizitza Sailak aurkeztutako datuek errealitate gordina erakusten dute: **etxebizitzak arazo bat eta oztopo zuzena izaten jarraitzen du milaka emakume langileren autonomiarako, bereziki, indarkeria matxista egoeretatik askatu nahi dutenentzat.**

Datuek islatzen dutenez, lana edo diru-sarrera propioak izan arren, emakumeek zailtasun handiagoak dituzte emantzipatzeko. EAEn, 2023ko *Etxebizitza Premiei eta Eskariari buruzko Inkestaren* arabera, lehen etxebizitza eskuratu nahi duten 18 eta 44 urte bitarteko emakumeen % 82,05ek uste du bere diru-sarrerak ez direla nahikoak, gizonen % 78,67ren aldean.

Desberdintasuna emantzipazio-baldintza prekarioetan ere agertzen da. Izan ere, **emakume emantzipatu askok beste pertsona batzuen diru-sarreren mende jarraitzen dute, partzialki edo erabat, normalean bizikidetzako kide batekiko edo bikotekidearekiko..**

Egoera horien atzean, emakumeen lan-prekarietate eta bizi baldintza okerragoak daude, eta horrek zaildu egiten die emakume langileei etxebizitza propioa eta autonomoa lortzea eta mantentzea.

4.2. Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa

Emakume langileen etxebizitza-problematikaren argazki zehatzagoa izateko, komeni da Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboaren (EES) aitorpenean ere arreta jartzea. EESak zenbait pertsonak babes publikoko etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea dutela aitortzen du bi egoeretan: haien diru-sarrerek merkatu libreko kostuak ordaintzeko aukerarik ematen ez dietenean eta zaurgarritasun-egoeran daudenean. Hala ere, eskubide horrek ez du bermatzen etxebizitza berehala ematea, etxebizitza publikoaren benetako eskuragarritasunaren mende baitago. Praktikan, EESak etxebizitza-irtenbide bat eskaintzeko betebeharra ezartzen dio administrazioari, baina pertsona askok hilabeteak edo baita urteak ere itxaron behar izaten dituzte bizileku seguru bat eskuratzeko.

Eusko Jaurlaritzaren 2025-2027 Etxebizitzaren Gida Planaren datuen arabera, EES ezarri zenetik 24.747 eskaera erregistratu dira, eta horietatik 17.390 pertsonari aitortu zaie eskubidea, tartean 10.500 emakumeri (%60,4). Hala ere, 2.766 etxebizitza baino ez dira azkenean esleitu; hau da, eskubidea aitortuta dutenen %15,9k inguru baino ez du lortu babes publikoko etxebizitza bat eskuratzea. EESren aplikazioak partziala izaten jarraitzen du; jakin baitakigu EES aitortua izan arren, etxebizitzarik gabe dauden pertsona kopurua handia dela. Nahiz eta azken txostenetan ez duten publiko egin zenbat familiek osatzen duten itxaron-zerrenda..

4.3. Etxebizitza-prestazioak

Emakume gehiagok laguntza publikoetara jotzen dute, etxebizitza eskuratzeko eta mantentzeko zailtasunak direla medio. Nafarroan 2024an, DAVID laguntzaren eskatzaileen % 65,1 emakumeak izan dira -diru-sarrera txikiak dituzten familiei zuzendutako alokairurako laguntza- eta EMANZIPAren eskaeren % 61,45 emakumeek egin dituzte -gazteen emantzipaziora bideratutako laguntza. Gainera, DAVIDen eskaeren % 42 guraso bakarreko familiei dagokie. EAEn, 5.084 emakumek Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoaren (EPE) bidez eskuratzen dute etxebizitza bat, eta 17.156k Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) jaso zuten 2024an, onuradun guztien % 54,3.

Oro har, adierazle horiek erakusten digute **emakumeek dutela babes publikoaren premia handiagoa**, eta guraso bakarreko familiak direla bereziki zaurgarriak direnak.

4.4. Guraso bakarreko familiak, emakume biktimak eta etxegabetzeak

Azkenik, ondorio horiek indartzen dituzten Estatuko bi txosten aipatu beharko genituzte.

Batetik, Etxebizitzaren aldeko 2025eko azterlanaren arabera, *Genero-dimentsioa etxebizitza eskuragarrirako sarbidean*, bizitegi-bazterketa etxeko unitateen %29,5ek ez dute etxebizitza egoki eta egonkor bat izateko aukerarik; ehuneko hori %34ra igotzen da emakumeak buru dituztenen artean, eta %51,6ra guraso bakarreko familien artean, gehienak ama bakarrak.

Bestetik, emakumeak etxegabetzeen aurrean (2024) txostenak erakusten duenez, etxegabetze-prozedura bati aurre egin zioten inkestatutako emakumeen %43,8 ama bakarrak ziren. Gainera, ez-ordaintzeagatiko etxegabetze-prozeduretatik, %6,05 genero-indarkeriazko egoerekin lotuta zeuden. Datu horiek agerian uzten dute **guraso bakarreko familiek zaurgarritasun egoera berezia pairatzen dutela etxebizitzari dagokionez, eta indarkeria matxistaren eta etxebizitza-galeraren arteko harremana handia dela.** Hori bera egiaztatu du Sindikatu Sozialistak bere eguneroko lanean, aurrerago helduko diogu horri.

5 Iristen ez diren baliabideak

5.1. Errealitatearen eta diskurtso instituzionalaren arteko kontrastea

Instituzioetatik, politikari profesionalek behin eta berriz esaten dute instituzioek konpromisoa hartzen dutela indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babesteko eta egoera horietatik atera ahal izateko beharrezko baliabide materialak bermatzeko. Hala, baieztatzen dute "zenbaki bakoitzaren atzean emakume bat dagoela, zeinak ikusi baitu instituzioak bere aldean jarri garela, laguntza egokia emanez" (Denis Itxaso, 2025), edo "emakume bakar batek ere ez lukeela indarkeriazko harreman batean jarraitu beharko etxerik gabe geratzeko beldurra tarteko". Ildo beretik, diote genero indarkeriaren aurkako borrokak "sentsibilizazio soziala, erabateko intolerantzia eta biktimak babesteko baliabideak" behar dituela (Gorka Urtaran, 2023), edo biktimek "lehentasunezko kolektiboa izan behar dutela haien etxebizitzarako sarbidea bermatzeko" (Miguel Laparra, 2017).

Hala eta guztiz ere, adierazpen horiek ez datoz bat errealitatearekin: baliabideak ez dira beti iristen, ez dira nahikoak izaten, desegokiak izaten dira edo biktimei zailtasun berriak sortzen dizkiete. **Diskurtso instituzionalaren eta emakume askoren esperientzia errealaren arteko distantzia esanguratsua da,** batez ere, **etxebizitza eta babesa benetan eskuratzeari dagokionean**. Desoreka horrek, gainera, mezu inplizitu kezkagarri bat transmititzen die emakumeei: indarkeria matxistagatik salaketa bat jartzeak egoera are isolatuagoan, babesgabeagoan eta zaurgarriagoan utz ditzaketela. Emakume langile askorentzat, ideia horrek salaketarik ez jartzera eraman ditzake, nabarmenduz sistemak ez dituela bermatzen indarkeria matxista sufritu ondoren bizitza berreraikitzeko beharrezkoak diren baldintza materialak.

Hiru arazo ditugu parez pare: lehenik eta behin, baliabide falta eta horiek eskuratzeko zailtasunak. Bigarrenik, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eskaintzen zaizkien baliabide horietako askoren izaera burokratikoa eta birbiktimizatzailea. Eta hirugarrenik, egoera asko "indarkeria matxistatzat" ez hartzea eta, beraz, egoera jakin batzuetan dauden emakumeentzako baliabiderik eza.

5.2. Baliabide falta

Baliabide faltari dagokionez, datuak lazgarriak dira. 2024an, genero-indarkeriaren biktima diren eta EAEn etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa izena emanda dauden 2.046 emakumeetatik 200 inguruk baino ez zuten alokairuko etxebizitza publiko bat eskuratu: % 9,8k baino ez. Urte horretan, % 90ek baino gehiagok ez zuen baliabide hori lortu, eta horrek agerian uzten du erantzun publikoa ez dela nahikoa.

Indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako baliabide espezifikoez gain, beste etxebizitza-irtenbide batzuk existitzen dira, hala nola alokairu sozialeko etxebizitza, babes ofizialeko etxebizitzak edo gizarte erakundeek eskainitako baliabideak. Indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako baliabideei dagokionez, EAEk 385 plaza ditu emakumeentzat eta bere kargura dauden pertsonentzat, larrialdiko baliabideetan, egonaldi ertainetan eta iraupen luzeagoko ostatuetan banatuta. Nafarroan ere sare espezifikoa txikia da, eta larrialdietako zentro bat, harrera-etxe bat, egoitza-pisu bat eta salerosketaren biktimentzako baliabideak konbinatzen ditu, guztira 33 plazarekin.

Baliabide mugatu horiek ez datoz bat etxebizitza babestuen eskaera kopuru gorakorrarekin. EAEn, Euskadin etxebizitza eskuratzeari buruzko txostena genero ikuspegitik (2024) aztertuz gero, genero-indarkeriaren biktima diren eta etxebizitza babestuaren eskatzaileak diren emakumeak 2023an 1.930 izatetik 2025ean 2.250 izatera igaro ziren, ia guztiak alokairu-erregimenean. Nafarroan, zuzenean alderagarriak diren datuak argitaratzen ez diren arren, 2024an 435 eskaera erregistratu ziren babestutako etxebizitzak jasotzeko, eta alokairuko 63 etxebizitza esleitu zizkien genero indarkeria frogatu ahal izan zuten emakumeei. Esleipendunen artean, % 77,18k SARA indizea baino diru-sarrera txikiagoak zituen (9.897,61 € urtean 2023an), eta % 92,39k adingabeak zituen ardurapean.

Oro har, datuek erakusten dute egiturazko muga dagoela indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen etxebizitza eskari gorakorraren eta berandu iristen diren edo iristen ez diren baliabide instituzional oso txikien artean.

5.3. Kontrol burokratikoa eta tutoretza instituzionala

Baliabide horiek eskuratzean emakume askok dituzten egoerak ere aztertu behar ditugu.

Alde batetik, **labirinto burokratiko bati egin behar diote aurre.** Labirinto horren helburua prozesua luzatzea da, eskaerak baztertzea eta irizpide burokratikoen bidez eskatzaileak jarraibide batzuen arabera diziplinatzea. Eskaintzen diren baliabideak burokraziaren menpe dauden, eta hainbat alderdi frogatzea eskatzen dute, hain zuzen, indarkeriaren ziurtagiri judizialak, errenta- edo egoitza-irizpideak zorrotz betetzea eta gizarte zerbitzuek "egokitzat" jotzen dituzten portaerak frogatzea. Eskakizun burokratikoen zurruntasuna, gainera, zentzugabea da: askok ihes egin berri duten udalerrietan erroldatuta egon behar dute, ez dituzten lan-kontratuak, edo erasotzailearengandik banandu ondoren jaso ez dituzten diru sarrerak erakutsi behar dituzte.

Bestetik, eskaintzen diren baliabide askok –aterpetxeek edo tutoretzapeko pisuek, esaterako– **emakume langileak birbiktimizatzen dituzte eta, askotan, kontrol-gune gisa funtzionatzen dute**: emakumeek ordutegi zorrotzak, bizikidetza-arauak, bisita mugatuak, etengabeko ikuskapena eta erakundeen baimena bete behar dituzte dirua kudeatzeko edo senideekin harremanetan egoteko. Hala, indarkeria matxista salatzen duten emakume asko erasotzailearen tutoretzatik erakunde publikoaren tutoretzara igarotzen dira; emakume horiek dira ordutegiak, arauak eta jarraipenak jasan behar dituztenak eta ez, ordea, tratu txarrak eman zizkieten gizonak.

Oso zaila da errealitate hori datuekin islatzea, emakume bakoitzaren bizipenen eta egoeraren araberakoa baita. Hala ere, Nafarroan badago datu oso esanguratsu bat indarkeriaren biktimentzako larrialdi zentroko erabiltzaileei buruz, azaldu dugun errealitate horrekin lotuta egongo litzatekeena. Zehazki, 2016 eta 2023 bitartean artatutako emakume guztiei buruzko datuak jaso ditu INAIk (oro har, astebeteko egonaldia), eta oso esanguratsua da ehuneko handi bat erasotzailearengana itzultzen dela etxera. Ehuneko hori dezente hazi da 2022an eta 2023an. Hain zuzen ere, azken urte honetan, indarkeria matxista kasuak artatzeko baliabidetik atera diren 4 emakumetik 1 erasotzailearekin itzuli da. Zalantzarik gabe, hori eragin dezaketen faktore ugari daude, baina ezin dugu baztertu kontrol burokratikoak eta baliabide faltak emakume asko erasotzailearengana itzultzera bultzatzen dituztela.

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Guztira	77	87	110	107	96	122	118	113
Erasotzailearekin itzuli dira	8 (10.4%)	8 (9.2%)	8 (7.3%)	14 (13.1%)	9 (9,4 %)	9 (7,4 %)	15 (12.7%)	27 (23.9%)

5.4. Inolako babesik jasotzen ez duten egoerak

Amaitzeko, adierazi behar dugu emakume langileek jasaten dituzten indarkeria fisiko eta sexualeko egoera asko ez direla sartzen aipatutako baliabideak jasotzeko kasuistiken artean. Hau da, erasotzailearen eta erasotuaren artean harreman afektibo-sexualik ez badago, salaketa jarri duten emakumeek ez dute azaldu ditugun baliabide espezifikoetarako eskubiderik. Horrela, bizitoki-alternatiba bat lortzea "familia barruko indarkeriara" mugatzen da, eta ez ditu barnean hartzen emakume langileek aurre egin beharreko hamaika egoera. Etxebizitza Sindikatu Sozialistan horrelako kasu batzuen berri izan dugu. Batez ere, errentatzaileek bortxatu dituzten emakumeak, eta haiekin bizitzera behartuta daudenak; errentaren ordainketa gisa "sexu mesedeak" onartu behar dituzten emakumeak; edo senideen edo senideen lagunen etxean bizi diren emakumeak, gehienak etorkinak, eta tratu txarrak mila modutan jasaten dituztenak. Kasu horietako batek ere ez du errekurtsorik jaso. Gainera, badakigu egoera horiek gora egingo dutela, gero eta ohikoagoa baita etxebizitza logelen alokairuen eta antzekoen bitartez eskuratzea.

6 Etxebizitza Sindikatu Sozialistara jotzen duten pertsonak

Etxebizitzaren problematikan generoak duen pisua eta indarkeria matxistarekin duen lotura ikusi ahal izateko, Etxebizitza Sindikatu Sozialistak bildutako datuetara ere jo dezakegu. Sindikatuko aholkularitzetara jotzen duten pertsonetatik soilik abiatuta ondorio orokorrik atera ezin bada ere, aholkularitza horietatik lortzen ditugun datuak adierazgarriak dira eta aurretik esandakoaren zati handi bat indartzen dute. 2022tik 2025eko abendura bitartean, Euskal Herri osoan zehar banatutako aholkularitza zerbitzuetan 4.000 pertsona inguru artatu ditugu. Bildutako datuetatik abiatuta, ondorio batzuk atera ditzakegu.

Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren datuen arabera, **2024-2025 ikasturtean** emakumeak izan dira sindikatura joan diren pertsonen % 55. Emakume horien artean, % 14k adierazi du indarkeria matxista jasan duela. Hala ere, zifra hori tentuz hartu behar da; izan ere, askotan ez da horrelako egoerarik ezagutzen edo egoera horiek pairatzen dituzten pertsonek ez dituzte jakinarazten. Beraz, litekeena da ehuneko hori are handiagoa izatea. Bereziki **esanguratsua da indarkeria matxistaren biktima diren emakume horien arazo ohikoenak aztertzea**, kasuen % 75 **etxegabetze prozedurekin lotuta** baitaude. Hau da, emakume horietako 4tik 3k kaleratze egoera bategatik jo du sindikatura. Arazo horren garrantzi orokorra artatutako kasu guztien % 49 dela kontuan hartuta, indarkeria matxista jasaten duten emakumeek etxetik botatzeko arrisku handiagoa dutela ikus daiteke.

Indarkeria matxistaren biktima diren **emakume horietako asko ama bakarrak dira.** Sindikatuak bildutako datuen arabera, profil hori kasuen % 63n betetzen da. Bizikidetza unitate hori da etxebizitzaren arazoa gehien pairatzen dutenetariko bat, bereziki seme-alaben ardura osoa izateaz gain indarkeria matxista jasan duten amen kasuan. Pobreziaren aurka Borrokatzeko Europako Sarearen datuen arabera, Espainiako Estatuko biztanleriaren % 25,7 pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskuan dago, eta ehuneko hori % 50,6ra igotzen da guraso bakarreko familien kasuan, hau da, arriskua bikoiztu egiten da. Bestalde, Espainiako Estatistika Institutuaren datuen arabera, guraso bakarreko familien % 80an baino gehiagotan familia burua emakumea da. Ehuneko hori are handiagoa da Sindikatuak jasotako kasuetan, guraso bakarreko familien % 96 baino gehiagotan emakumeak baitira seme-alabekin bakarrik bizi direnak. Datu horietatik ondorioztatzen denez, emakume langileek jasaten duten zapalkuntza- eta prekarietate-egoerak bereziki zaurgarri bihurtzen ditu guraso bakarreko amak.

Azkenik, nabarmentzekoa da desokupazio enpresen etxegabetze mehatxuak jaso dituzten familien 12 kasu jaso ditugula azken urtean, eta 12 kasuetatik 8 ama ezkongabeak zirela. Hori ez dator bat desokupazio enpresa faxistek zabaldu nahi duten irudi estereotipatu eta kriminalizatzailearekin.

7 Testigantzak

Ezin dugu txosten hau amaitu Sindikatuarengana jo duten emakume batzuei ahotsa eman gabe. Haien testigantzek datuek islatu ezin duten errealitatearen zati handi bat argitzen dute. Haien intimitatea eta segurtasuna babesteko, testigantzak asmatutako izenekin aurkeztuko ditugu.

7.1. Esther: erasotzailearekin bizitzera behartua

"Esther" Gasteizko Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren aholkularitzara joan zen eta bere egoeraren berri eman zigun. Alaba adingabe baten ama eta genero indarkeriaren biktima da. Esther Alokabideren etxe batetik bota zuten, iruzur baten ondorioz. Pertsona batek alokairua eskaini zion prezio altu baten truke; etxebizitza aurrez ikusi ezinik eta beste aukerarik gabe, eskatzen ziotena ordaindu zuen. Etxebizitzara sartu zenean, Alokabideren etxebizitza bat zela konturatu zen, eta iruzur egin ziotela. Sindikatuan antzeko dozena erdi bat iruzur gehiagoren berri izan dugu. Hala ere, erakundeek inolako arazorik gabe, indarkeria matxista jasan zuen eta adingabe baten ardura zuen emakume bat etxegabetu zuten.

> *"Joan egin ginen hortik, gizarte langileak ez zigun lagundu. Lehenbailehen beste zerbait bilatu behar genuela esan zigun. Oraingoz behin-behineko zerbait zegoela, mila euro baino zerbait gehiago balio zuena. Etxean nik bakarrik egiten nuen lan, soldata bakarra nuen. Egoitza batean lan egiten nuen eta 1200 euro irabazten nituen. Aurrezkiak izan behar nituela zioen. Nork ditu aurrezkiak ordaindu beharreko guztiarekin?".*

Bestalde, emakume horrek azaldu du, bere borondatea gorabehera, bere erasotzailearekin bizi behar izan zuela, premia ekonomikoagatik.

> *"Hemen 820 euro ordaintzen ditugu bizi garen bi familien artean. Gastu guztiak ordaindu eta hori... Bera zen egunerokoan lan egiten zuena... Eta nik berarekin bizi behar izan nuen, nahiz eta jada ez nuen nahi".*

Ondoren, langabezia prestazioa jasotzen zuen bitartean, arazo burokratiko batengatik diru-laguntza atzera bota ziotela azaldu zuen, eta diru-sarrerarik gabe utzi zuela. *"Orain ez nago lanean, ez daukat ez diru-sarrerarik, ez ezer. 200 euroko laguntza baino ez didate ematen, semearena."* Diru-sarrerak galdu zituenez, eta hileko 200 euroko laguntzarekin bakarrik, Estherrek azaroan utzi zion alokairua ordaintzeari, ezinezkoa baitzitzaion zegozkion 410 euroak bere gain hartzea. Honela laburbiltzen du: *"Edo jaten duzu edo alokairua ordaintzen duzu. Eta urtebeteko neskatoa izanda, zure lehentasuna ez da alokairua ordaintzea."*

7.2. Natalia: sexu intsinuazioak aterpearen truke

Nataliak dio jabearengandik komentario matxistak eta botere abusuak jasan behar izan zituela. Etxejabeak alokairurik ez ordaintzeko proposatu zion, Nataliak zituen zailtasun ekonomikoak medio, baina ordainetan bere ezkongai gisa bizitzea onartu behar zuen.

> *"«Bakarrik ikusi zaitut zure semearekin, familiarik gabe. Ez duzu zertan ordaindu, ondo tratatu behar nauzu, besterik ez», esaten zidan. Ikusten nuen nola begiratzen zidan. Ez zen normala. Beharbada gaizki ulertzen ari nintzen, baina egun hartan dena ulertu nuen."*

Behin uko egin egin zion eta, hilabetera, etxetik alde egin behar zuela jakinarazi zion. Gainera, abisurik eta baimenik gabe etxebizitzara joaten hasi zen. Gertaera horiek hasi zirenetik etxetik joan nahi badu ere, bere egoera ekonomikoak eta alternatiba instituzionalik ezak bertan harrapatuta mantentzen dute: ostalaritzan aurkitu berri du lana, soldata oso baxuarekin, eta 300 euro ordaindu behar ditu hilero semea zaintzeko, baita 650 euroko alokairua ere.

> *"Orduko 5 euro ordaintzen dizkidate." Prekarietateak eta aterperik gabe geratzeko beldurrak salaketa jartzeko asmoa kendu zioten. "Ez nago eroso etxean. Zarata bat entzuten dut etxean eta beldur naiz. Baina ezin naiz ume batekin kalera irten. Eutsi egin behar diot."*

Nataliak kontatzen duenez, jabe batek etxebizitza bat bisitatzeko deitu zion eta egun batzuk geroago “akordio” bat proposatzeko deitu zion: alokairua eskaintzen zion 500 euroren truke. *“Esan zidan gustatzen nintzaiola eta akordio batera irits gintezkeela nik lan sexualak eskaintzen banizkion.”*

7.3. Cristina: etxejabearen sexu erasoen biktima

Cristina Uribe Kostan bizi da, alokatutako gela batean. Etxebizitza berean bizi da errentatzailearekin eta etxearen jabearekin. Jabeak ez dio kontraturik egin, ordainketa guztiak eskudirutan egin behar izan ditu eta ez diote erroldatzen utzi.

> *“Duela aste batzuk, jabea sexualki erasotzen saiatu zen. Bortxatzen saiatu zen, alde guztietatik ukitu ninduen eta hori niretzat onena izango zela esan zidan. Ihes egitea lortu nuen, baina orain han bizi behar dut, berarekin. Ez daukat dirurik beste norabait joateko, nire diru-sarrerak 500 euro baino gutxiagokoak dira hilean. Bizi naizen udalerriko zerbitzuek ez didate alternatibarik eskaintzen eta erroldatze soziala ukatu didate. Ez dut erasotzailearekin bizitzen jarraitu nahi.”*

Cristinari gizarte-zerbitzuetara lagundu genionean, erasotzailearekin harreman afektiborik ez zuenez, ezin zuen bizitegi-baliabiderik eskuratu. Aukera bakarra sexu-jazarpenagatiko salaketa jartzea zen, eta salaketa horrek ez zuen inola ere etxebizitza-arazoa konponduko, eta are gehiago, etxean zuen egoera larriagotuko zuen. Gainera, bizi den udalerriko gizarte-zerbitzuek alternatibak eta erroldatze soziala ukatu dizkiote.

7.4. Rania: baliabide prekario batetik beste batera, egonkortasunik eta bermerik gabe

Rania Gasteizen bizi da eta indarkeria matxistaren biktima da. Azaldu duenez, instituzioek ez zioten harrera etxerik eskaini, ezta babesteko baliabide espezifikorik ere, nahiz eta erasotzaileak sarritan jazartzen zuen eta poliziari deitu behar izaten zion. Hala eta guztiz ere, gizarte langileak geroago jakinarazi zion, harrera etxe batetik igaro ez zenez, ez zuela etxebizitzarako eskubiderik genero indarkeriaren biktima izateagatik, harrera etxera joateko aukera hori inoiz eskaini ez zitzaion arren.

Bost urtez bizi izan ze etxebizitzatik bota ondoren, Gizarte Zerbitzuetara jo zuen berriro. Bertan eskainitako aukera bakarra aldi baterako etxebizitzara joatea izan zen, kalitate kaskarreko batera. Lehenik, La Paz pentsiora bidali zuten, eta han baldintzak eskasak zirela azaldu zigun: *"Ez zegoen ez sukalderik ez ezer. Gela txiki bat bainugela batekin. Labezomorroak zeuden, gelan bertan prestatu behar genuelako janaria".* Ondoren, hiru aldiz lekualdatu zuten urtebete pasatxoan, San Fermin apartamentuetatik pasatu zen eta, geroago, Ibaiondokoetatik. Etengabeko mugimendu hori ez zen laguntza neurri bat, bere egoeraren ezegonkortasuna larriagotu besterik ez baitzuen egiten.

Egungo ostatua egoera txarrean dago, eta ez du gutxieneko bizigarritasun baldintzarik betetzen. Gainera, egonaldiaren berritzea gizarte-langileak aldian-aldian eta ustekabean egiten dituen azterketen mende dago. Gizarte-langilea bi astetik behin joaten da gela ikuskatzera, aldez aurretik jakinarazi gabe, nahiz eta lekuaren egoera txarra dela jakin. *"Ez dizu abisatzen, edozein unetan etortzen zaizu",* adierazi du. Rania ostatu honen ezegonkortasunaz eta bete beharreko baldintzez mintzo da: *"Bi hilean behin ostatua berritzen dizute eta ordainketen ordainagiriak entregatu behar dituzu. Bertan bizitzeko hainbat baldintza daude: ezin duzu zaratarik egin, ezin duzu bisitarik jaso, ezin da erre..."*

7.5. Fatou y María: "Date una Oportunidad", izenaren eta eskaintzaren arteko kontrastea

Fatou eta María zaurgarritasun egoeran dauden emakumeentzako etxebizitza baliabideetan bizi dira Iruñean, DUO (Date una Oportunidad) programaren bidez. Programa hori Iruñeko Udaleko Emakumeen Arretarako Udal Zerbitzuak finantzatzen du, eta Kamira kooperatiba sozialak kudeatzen du.

Fatou emakume migratua da, 18 urtetik beherako bi seme-alaben ama. 2022an iritsi zen DUO programara, jatorrizko herrialdean indarkeria matxista jasan ondoren.

> *"Programan sartu nintzenean pentsatu nuen bizitza berri bat has nezakeela nire seme-alabekin, leku seguru batean. Hasieratik saiatu naiz eskatzen zidaten guztia betetzen. Hiru hilean behin jarraipen-orriak sinarazten dizkidate, tailerretara eta programako jarduera guztietara joaten naiz. Bizikidetza neurriak bete izan ditut, eta inoiz ez dut arazorik izan gizarte-langileekin. Denbora honetan guztian gure bizitza berreraikitzen saiatu naiz. Gaur egun, lanaldi erdiko lana daukat eta ahal dudan guztia egiten*

dut nire familia mantentzeko. Ez da erraza izan, baina aurrera jarraitu dut nire seme-alabak nire menpe daudelako."

Duela urtebete inguru esan zioten programan emandako gehieneko denborara iritsi zela eta etxebizitza utzi behar zuela. Harrezkero larrituta igaro ditu egunak, behin eta berriz esan baitiote joan egin behar duela.

"Alokairua aurkitzeko presioa egiten didate, baina badakite ezinezkoa zaidala. Ez didate lagundu. Pare bat aldiz bakarrik lagundu zidaten Idealistatik gela bat bilatzen, emaitza handirik gabe. Lana eta aurrezkiak baditut ere, ama ezkongabea eta etorkina izanik, inork ez dit alokatu nahi".

Bestalde, Mariak 40 urte ditu, eta 6 urtetik beherako bi seme-alaben ama da. 2022an, Emakumearen Arretarako Udal Zerbitzuko gizarte-langileak Iruñeko DUO programara bidali zuen, bikotekidearen indarkeria matxista jasan ondoren.

"Programa emakumeoi laguntzeko eta egonkortasun pertsonala, laborala eta etxebizitzakoa lortzen laguntzeko baliabide gisa aurkeztu zen. Han bizi izan ginen programaren pisu batean, ni nire bizitza berrantolatzen eta aurrera atera ahal izateko lan egiten saiatzen nintzen bitartean. Urte hauetan programak eskatzen zidan guztia betetzen saiatu naiz. Jarraibideei jarraitu diet, jardueretan parte hartu dut eta eskatu didaten guztia egin dut."

Hala ere, Fatouri bezala, Mariari ere esan zioten bere denbora amaitu zela eta etxetik alde egin behar zuela. Berari ere ez zioten beste aukerarik eskaini.

"Lanean egon arren, ia ezinezkoa da alokairua eskuratzea. Jabeek kontratu finkoak, nomina altuagoak, abalak eta fidantzak eskatzen dituzte, nik hartu ezin ditudanak. Saiatu nintzen denbora gehiago eskatzen bizitoki bat aurkitu ahal izateko, baina bi egun bakarrik eman zizkidaten. Programaren baja sinatzeko presioa egin zidaten, eta etxebizitza uzten ez banuen, «legez kanpoko» egoeran egongo nintzela ere esan zidaten. Hori entzuteak beldur handia eragin zidan. Etengabe pentsatzen dut nire seme-alabengan eta gurekin zer gertatuko ote den. Erabat abandonatuta eta baliabiderik gabe sentitzen naiz; ahal izan dudan guztia egin dut, eta, hala ere, ez dut etxebizitzarik aurkitzen."

7.6. Arantxa: senarra salatu ostean, etxegabetu egin dute

Arantxak bi seme ditu, bata 8 urtekoa eta bestea 14 urtekoa. Senarrarekin bizi zen Alokabideren alokairuko etxebizitza batean, Gasteizko Salburua auzoan. Alokairua senarraren izenean zegoen, eta berak zituen diru-sarrera erregularrak. Hainbat urtez tratu txarrak jasan ondoren, Arantxak salatzea erabaki zuen, eta harengandik banatzea lortu zuen.

> *"Ni etxean geratu nintzen eta azkenean joan egin zen. Baina bakarrik geratu nintzen bi haurrekin, lanik gabe eta nire familiarik gabe. Lagun bat daukat ahal duen guztian laguntzen didana, baina berak ere badu berea. Hemen ondoan bizi da, seme-alabekin, Alokabideko beste etxe batean".*

Denbora gutxiren buruan pilatu ziren ez-ordaintzeak, eta Alokabidek etxegabetze-prozedura bat ireki zuen. Arantxa Etxebizitza Sindikatura joan zen, baina aste batzuk lehenago etxegabetzeen moratoria erori zen eta ezin izan zen ezer egin. Sindikatuak protesta ekitaldi bat egin zuen etxegabetzea gauzatu zen egunean, polizia-kargak izan ziren, eta Denis Itxaso Etxebizitzako sailburuak adierazi zuen "*Alokabidetik ez dela inor kaleratzen arrazoirik gabe",* eta *"etxe hori libratu behar zela baldintzak betetzen zituen norbaitentzat".* Arantxak seme-alabekin utzi zuen etxebizitza eta gaur egun bere lagunaren etxean bizi da. Azken hori ere Alokabideren etxebizitza batean bizi da, eta beste etxegabetze-prozedura bati ere aurre egin behar dio.

> *"Azkenean, zer egin behar nuen? Agian lehen hobeto nengoen. Bada orain, begira zertarako balio izan didan senarra erasotzailearen aurkako salaketak: etxetik bota eta nire seme-alabekin sofa batean lo egiteko. Nire lagunari esker, ez nago zubi baten azpian."*

8 Ondorioak

8.1. Askatasun ekonomikoa askatasun soziala da

Txosten honen edukia laburbiltzen duten hainbat ondorio atera daitezke. Lehenik eta behin, emakume langileek, lan- baldintza kaskarragoak dituztelako, etxebizitzaren arazoa modu orokorragoan pairatzen dute. Gainera, etxebizitzak erreprodukzio sozialean betetzen duen funtzioa dela eta, etxebizitzaren arazoak modu espezifikoan eragiten die; izan ere, makume langile askorentzat kontrolerako, zaurgarritasun ekonomikoa areagotzeko eta indarkeria fisiko eta sexualerako espazio dira. Bigarrenik, **etxebizitza eskuratzeko duten arazoaren ondorioz, emakume langileek oztopo handia dute, batetik, bizitza betea eta independentea garatzeko eta, bestetik, jasaten dituzten indarkeria-egoeretetatik askatzeko.** Beraz, indarkeria matxista eta etxebizitza-arazoak nabarmen areagotuko direla ikusita, aurreikusgarria da etxebizitza-baliabideak izatea indarkeria matxistari aurre egiteko politiken zutabeetako bat. Hala ere, ikusi dugunez, **administrazioek eskura jartzen dituzten baliabideak urriak dira, kalitate txarrekoak, ez dituzte kasuistika asko hartzen**, eta, gainera, kontrol burokratikoa eta emakumeen gaineko tutoretza ezartzen dute, **berriro biktimizatuz**.

Horregatik guztiagatik, **ondorioztatzen dugu baliabide falta ez dela unean uneko zerbait edo gobernatzen duen alderdiaren arabera alda daitekeen zerbait**. Administrazio baten edo bestearen artean zenbait desberdintasun egon badaitezke ere, kontua da etxebizitza –baita publikoa deitzen duguna ere– merkatu-logiken mende dagoen bitartean, etxebizitza eskuratzeko modua diruak eta klase sozialak baldintzatuko duela, emakume langileon egoera are eta larriagoa delarik. Emakumea bigarren mailako subjektu izaten jarraitzea da emakume langileon aurkako indarkeriaren helburua, hain zuzen, sozialki eta ekonomikoki mendeko izaten jarraitzea. Indarkeria horrek legitimatzen duen kultura-testuinguru bat behar du, baina baita mendekotasun- eta zigorgabetasun-esparru bat ere. Sozialki eta ekonomikoki emantzipatua

dagoen emakume batek indarkeria matxista jasateko aukera murritzagoa da eta, aldi berean, tratu txarrak ematen dituenak inpunitate txikiagoa du, emakumeak aukera gehiago baitu indarkeria egoera seinalatzeko. Arazo horien konponbidea dimentsio anitzekoa den arren –politikoa, kulturala, ideologikoa, materiala–, begi bistakoa dena nabarmendu behar dugu: nabarmendu behar dugu: guztiontzako kalitatezko bizi-baldintzen aldeko aldarrikapenak gure proposamen politikoaren erdigunean egon behar du. Hau da, emakume langileok gure zapaldu egoeratik askatzeko ezinbestekoa izango da independentzia ekonomikoa izatea eta etxebizitza eskubidea bermatuta edukitzea. Eta, hain zuzen, **bizi- baldintza unibertsal horiek gauzaezinak direlako sistema ekonomiko kapitalistan, gure proposamena gizarte komunista eraikitzea da.**

8.2. Etxebizitzaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako borrokaren zereginak

Hala ere, horrek guztiak berehalako zeregin batzuk galdegiten ditu: etxebizitzaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako gure borroketan aplikatzen diren printzipio gidariak.

Indarkeria matxistari aurre egiteko lehentasunezko zeregin politikoak **emakume langileen babesa antolatzetik** hasi behar dira, **baldintza materialak eta pertsonalak bermatuz**, erasotuak izan diren emakumeek beren bizitzarekin aurrera egin dezaten. Zentzu horretan ezinbestekoa da, batetik, **indarkeria matxista jasan duten emakumeek babesgunea izango den kalitatezko etxebizitza bermatuta edukitzea**, hasieratik eta inolako baldintzarik gabe. Bestetik, emakume horien eta, seme- alabak izatekotan **haien ongizaterako beharrezkoak izan daitezkeen laguntza profesionalak bermatuta izatea**. Eta azkenik, emakume horiek **herritarren babes soziala** eduki behar dute, berriz biktimizitzea saihesteko beharrezkoa baita erasotzaileen aurkako posizio irmoa edukitzea, besteak beste.

Baina hori ez da nahikoa. Eraso bakoitzaren aurrean irmotasunez eta eraginkortasunez erantzuteko gai den indar politiko bat eraiki behar da, erasotzaileen zigorgabetasuna amaitzeko eta indarkeria matxistaren eta arau kultural matxistaren aurkako kontzientzia aktiboa jendartean zabaltzeko. Azkenik, **instituzio kapitalistetatik kanpoko antolakuntza politiko iraultzailea indartu behar da, matxismoaren aurkako borrokarekin konprometitua dagoena, bere baitan inolako zapalkuntzarik onartuko ez duena eta errespetuan eta elkarrekiko babesean oinarritutako etika komunista zabalduko duena.**

Indarkeria matxistaren aurka
eta etxebizitza eskubidearen alde

BATU BORROKARA!

---

etxesindikatua
etxesindikatua
etxebizitzasindikatua@kontseilusozialista.eus

itaiasarea
itaiasarea
kom.itaia@gmail.com

itaia

Euskal Herriko
Etxebizitza
Sindikatu
Sozialista